

Euskal AEn jaiotako haurren izen ugarienak, Ane eta Markel

Gurasoek euskal izen bakunetara jotzen dute

1996tik hona, Ane da neska-izena aukeratzeko orduan gurasoen kutunena, Eustaten arabera, Euskal AEn 2010-2012 artean jaiotako izenez ari delarik. Ondoren June, Irati, Nahia, Uxue, Izaro.

Mutikoentzako izen ugarienak: Markel, Jon, Iker, Oier, Ander, Unai.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo konposatu bat jartzeko aukera ematen du; gurasoek bakun batera jotzen dute. Ehun izen ugarienen artean ez dago konposaturik bat ere; garai batean oso-oso ohikoak ziren.

Izen bereko grafia ezberdinak

Euskal izenak dira nagusi, batzuetan bi grafia agertzen direlarik: Ane-Anne, Itxaso-Itsaso, Leire-Leyre, Jon-Ion, Aritz-Haritz. Maria eta Miren bikotean izan ezik, izen baten euskal forma nagusitzen da; horixe gertatzen da Ane-Ana, Xabier-Javier, Jon-Juan, Mikel-Miguel bikoteetan.

“Naia” eta “Nahia” izenez azalpena eman beharra dago. “Naia”, seguru asko, “Nahia”-ren aldagaitzat hartzen da; azken hau da Euskaltzaindiak onartzen duena. “Naia” zortzigarren dago neska-izenen artean, ziurrenik arestian aipatu arrazoiagatik. “Naia”, bestalde, zenbait hizkuntzatan (frantsesa, katalana, ingelesa) agertzen da, eta Espainiako toponimoetan. “Nahia” dudarik gabe euskal izena da; laugarren neska-izenen zerrendan. Bien artean neska-izen ugariena osatuko lukete (1.104 aipamen, %3,61).

Ama atzeritarrek ere euskal izenak aukeratzen dituzte

Ama atzeritarrek ere euskal izenak aukeratzen dituzte, baina badago alderik rankin orokorraren aldean. 5 neska-izen ugarienen arteko 3 –Naiara, Ainhoa, Nahia- euskal izenak dira; zerrendako aurrenekoa Sara da, hebrear jatorrikoa. Mutiko-izenetan Iker aurrena eta Ander laugarrena, euskal izenak; bigarren Adam, hebrearra; hirugarren Mohamed, arabiarra; bosgarren Rayan, zeinak hainbat jatorri eduki ditzakeen.

Amen artean Ainhoa nagusi; aiten artean Aitor

Hona hemen 2010/2012 artean ama izan zirenen izen ugarienak: Ainhoa, Leire, Nerea, Amaia, Sonia, María, Marta, Ainara, Susana, Mónica. Emakume hauek, gehienak 1972-1982 artean jaio ziren; 3 izen ugarietak euskal izenak ziren, baina izen gaztelarrak oraindik asko erabiltzen ziren. Izen ugarietak bakunak ziren, baina amen %14 inguruk María zuen izen konposatuan.

2010/2012 artean aita izan zirenen izen ugariak: Aitor, Javier, David, Iñigo, Asier, Oscar, Gorka, Iker, Francisco Javier, Iñaki. 1970-1980 artean jaiotako gizonak ziren gehienak; izen konposatuak gutxituz, euskal izenak gehituz.

1. taula: Euskal AEn jaioen 25 izen ugariak. 2010-2012

	Neskak			Mutilak		
	Izena	Maiztasuna	%	Izena	Maiztasuna	%
1	Ane	956	3,13	Markel	926	3,03
2	June	783	2,56	Jon	901	2,95
3	Irati	686	2,25	Iker	832	2,72
4	Nahia	637	2,08	Oier	808	2,64
5	Uxue	581	1,90	Ander	790	2,59
6	Izaro	549	1,80	Unai	776	2,54
7	Nora	546	1,79	Mikel	674	2,21
8	Naia	467	1,53	Aimar	653	2,14
9	Lucía	458	1,50	Unax	613	2,01
10	Sara	450	1,47	Julen	589	1,93
11	Maialen	443	1,45	Eneko	577	1,89
12	Haizea	438	1,43	Ibai	564	1,85
13	Paula	422	1,38	Asier	481	1,57
14	Leire	408	1,34	Xabier	394	1,29
15	Maddi	383	1,25	Beñat	386	1,26
16	Naroa	381	1,25	Aitor	376	1,23
17	Eider	341	1,12	Alain	370	1,21
18	Iraia	341	1,12	Oihan	353	1,16
19	Laia	315	1,03	Danel	331	1,08
20	Malen	305	1,00	Martin/Martín	324	1,06
21	Enara	294	0,96	Aner	303	0,99
22	Noa	287	0,94	Amets	297	0,97
23	Aitana	257	0,84	Aritz	281	0,92
24	Nerea	256	0,84	Ekain	281	0,92
25	Garazi	243	0,80	Urko	269	0,88

Iturria: Eustat. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
 Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKari buruzko prentsa-ohar gehiago
 Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKari buruzko datu-bankua